



Biteriko ikastaroetan egindako lanen erakusketa, Biterin. Urte osoko lanak eman du berea.

## Biteriko ikastaroetan herritarrek egindako arte lanak erakusketan, bihar arte

- Biteriko ikastaroek eman duten uzta Biterin dago jarria: eskulanak, argazkiak, pinturak, harri-lanak...
- Gaur arratsaldean, dantza eta antzerki tailerren emanaldia ere izango da Biterin.

HERNANIARREK Biteriko ikastaroetan egindako lanak erakusketan jarrita daude, eta ostirala izango da ikusteko azken eguna. Urtero bezala, aurten ere Biteriko erakusketagela txikitxo gelditu da ikastaroen emaitza ikusita.

Barietate handiko arte lanak egin ditu jendeak: egurtailan era askotako irudi, es-

kudo, erloju eta lanak daude. Realta eta Atleticen eskuduak ere egurrean tailatuta han daude elkarren ondoan jarrita, artistak liga bukaera nolakoa zetorren tankera eman balio bezala. Berritutako altzaritan ere aukera dezentea dago. Pinturan ere lan asko daude: erretratuak, paisajetak, pintura abstraktuak eta

abar. Argazkiak, harri-lanak, zeramikan egindako irudiak eta abar ere badaude erakusketan. Bihar arte egongo da zabalik, 18:00etatik 20:00-etara.

Gaztetxoek ere badute beren tokia erakusketan. Berak egindako marrazki eta lanak Biteriko pasiluan jarrita daude.

**Dantza eta antzerkia gaur**  
Arte lanez gain, dantza eta antzerki ikastaroak ere urte osoko lanaren erakustaldia egingo dute gaur. Arratsaldeko 19:30etan saloiko dantza eta dantza kontenporaneo emanaldia izango da Biterin. Eta 20:00etan, berriz, antzerki tailerrak *Esaidazu* obra antzeztuko du. □



Harrian landutako figura, eta argazkiak atzean.



Egurrekin egindako lan asko dago Biterin.

### ■ PELOTA

## Herriarteko semifinala bihar

HERNANIK ostiralean jokatu du Herriarteko pelota txapelketako semifinala, Donostiaren kontra. Hernaniarrek 1-2 irabazi zuten Altzan jokatuako partiduetan latz sufrituta, eta tanteoa kontra zutela bueltatu ziren. Bihar ere titularrek jokatu dute eta oraingoz Hernani 2-1 aurretik joanagatik pelota elkartekoek finala zail ikusten dute. □

## Tolarea sagardo kofradiak asanblea egingo du gaur

TOLAREA Sagardo Naturalaren Kofradiak urteko asanblea egingo du gaur arratsaldean Biterin. Asanblea arratsaldeko 20:00etan da eta 5 puntuko gai ordena du, horietako bat lehendakari aukeraketari dagokiona. Gainerakoan, urteko balantzea egingo da. □



Rodriguez de Mendarozketa, antolatzaile batekin.

## 91 urteko anarkista baten hitzaldia


MANUEL Rodriguez de Mendarozketa 91 urteko anarkista donostiarra Andragoto ateneoan izango da gaur, talde batek antolatutako hitzaldi-tertulian. 20:00etan. □

**OINDI**  
  
**taberna**  
NAGUSIA, 25  
**HERNANI**  
943 557 509

**AMEGAR**  
Etxe tresnak  
Altzariak  
  
Elektrogailuak  
TB- Bideoak-  
HI-FI-Opariak  
Sukalde altzariak  
**San Joan jai zoriontzuak**  
*opa dizkizuegu.*  
Tél.: 943 55 11 25  
Faxa: 943 55 16 30

*Arandegia*  
**Mari Fe**  
  
**Gora SAN JOAN**  
Nagusia 36 | Orkolaga 17  
943 550 489 | 943 552 741  
**HERNANI**

**GALARRETA JAI-ALAI**  
  
Ostegun, larunbat eta igandetan jaialdiak  
**GAUR 16:00ETATIK AURRERA**  
**ERREMONTA JAIALDIA:**  
1. partidua: Odriozola - Gaztelu / Uterga - Etxeberria II  
2. partidua: Ezkurra - Euzmendi / Altuna II - Eizagirre  
3. partidua: Altuna I - Etxabe / Agirresarobe - Lizaso  
4. partidua: Matxin III - Urretabizkaia II / Iribarren - Urko



Askagintzako Gazte Tailerreko kideak. Ezkerretik: Telleria, Gartziandia, Altuna eta Iturbe.

## Drogak eta sexuari buruzko lehiaketa artistikoa gazteek tabuak hautsi eta barrena askatzeko

■ Askagintzak antolatu du eta 15 urtetik 21 urte biterko gazteentzat da ■ Lanak literarioak edo grafikoak izan litezke ■ Lanak aurkezteko epea, ekainak 30.

ASKAGINTZAK drogak eta sexualitateari buruzko lehiaketa artistikoa antolatu du 15-21 urteko gazteentzat. Lehiaketan ipuiak, bertsoak, istorioak, argazkiak, komikiak eta abar egin litezke, eta helburu nagusia da lan horien bidez gazteei droga eta sexualitateari buruz erreflexionatzea eta gauza horiek lasai azaltzea.

Askagintzako Gazte Tailerreko kideek Kronikari adierazi dionetaz, gaur egunean edade

horretako gazteen kezka nagusietako bat dira drogak eta sexualitatea, eta lehiaketa hori bide bat izatea nahi dute tabuak hautsi eta barrena askatzeko. Iniziatiba honen atzean dagoen beste planteamendu bat da gazteek drogak eta sexualitatea nola bizi duten ezagutzeari beren testimonio errealek edo fiktiziotik. Lehiaketa artistiko hori bai Hernanin eta bai Euskal Herrian egiten den aurrenekoa da, eta aurrera ere segitzeko asmoz sortu dute.

### Hiru espezialitate

Gai orokorra drogak eta sexualitatea da, baina, 3 espezialitatean aurkeztu litezke: estimulazioaren inguruan, aluzinazioaren inguruan eta depresioaren inguruan. Espezialitate bakoitzean izango da irabazle bat eta 100 euroko saria jasoko du. Lanak bidaltzeko bi aukera daude: kartaz, Askagintzara (Aristizabal 9) edo bestela, Andragoton utzi (Izpizua 13). Sariak uztailearen 4an banatuko dira. □

## TXINPARTA TALDEAREN IBILALDIA GOIZUETARA



Txinparta taldeak Goizuetara antolatutako ibilaldia

## Juan Luis Uralde txapelkun sagardo lehiaketan


TXINPARTA taldeak aurtenera egin du Goizuterako ibilaldia. 25 lagun inguru joan ziren. Urteroko ohiturari segiz sa-

gardo txapelketa egin zuten Goizuetako Umore Ona elkartean. Sagardo lehiaketa Juan Luis Uraldek irabazi zuen, Be-

reziartuako sagardoarekin, eta bigarren Jon Imazek egin zuen, Rufinoko sagardoarekin. Eguna giro ederrean joan zen. □

INFORMAZIO ETA ERRESERBA EGITEKO DEITU

## JAYREGI jatetxea



Ekainaren 23an egun guztiak irekita.  
Ekainaren 24an. Eguerdian irekita. 18:00etatik itxita.  
Festetan Menu bereziak.

Jauregi Bailara, Tel.: 943 550034 / 943 330424  
Hernani (Gipuzkoa)

## ■ HITZ BITAN

### ✓ SKATE PARKEA

**Skate parkea eskatzeko firma bilketa eta bideoa.** Gazte talde batek Skate parkea egiteko eskaera egingo dio Udalarari eta pentsatu dute horretarako firma bilketa eta bideoa egitea. Guzti horretarako gazteek deialdia egin dute arratsaldeko 18:00etan Plaza Berrian. Gazteek jendearen babesa eskatu dute beren eskakizuna aurrera ateratzeko.

### ✓ ARTEA

**Errapia taldeak Beran jarri du erakusketa.** Errerapia kultur taldeak arte erakusketa jarri du Berako kultur etxean. Errapia orain dela gutxi sortutako taldea da eta Hernani eta inguruko artistak biltzen ditu. Dagoeneko Goizuetan eta Hernanin bertan jarria du erakusketa, eta ekainaren 29 arte Berako kultur etxean egongo da. Orduetgia: 10:00-14:00/ 16:00-19:00. Igande eta astelehenetan itxita.

### ✓ HIRULAUDEN PLATAFORMA

**Kontzentrazioa gaur Plaza Berrian.** Hirulaurden plataformak hamabosteroko kontzentrazioa egingo du gaur zigorren hirulaurdenak bete dituzten presoek askatasuna eskatzeko. Kontzentrazioa 19:00etan izango da.

### ✓ KAXKO ELKARTEA

**Jaiak antolatzeko bilera gaur, Biterin.** Kaxko Elkarteak Alde Zaharreko jaiak antolatzeko bilera egingo du gaur, 20:00etan Biterin. Era berean, Kaxko Elkarteak eskerrak eman dizkie hirugarren fasearen inaugurazioan lagundu zuten auzotar, elkarte eta establezimenduei. Eskerrak, Txantxangorri eta Santa Barbara elkarte, Garin taberna, Alkorta Harategia, Errioguarda jatetxea, Adarraga Pasteleria, eta dantzari eta txistulariei.

### ✓ PRELUDIOA

**ETBk larunbat gaueko emango du.** San Juan Preludioa, larunbat gauean (ez egurdian) botako du ETBk, 23:00ak aldera. Ordu eta erdiko emisioa izango da eta emanaldi osoa botako du.

### ✓ TENIS ETA SQUASH TXAPELKETA

**Finalak aste honetan.** Hernaniko Tenis eta Squash txapelketako azken partiduak jokatuko dira aste honetan. Tenisean, Iñaki Guruzeaga eta Agustin Izquierdok hiru-laugarren postuak jokatuko dituzte eta Luis Mari Sanchez eta Jesus Alkainek finala. Squashean, Iñaki Oruezabala eta Juan Mari Otegik jokatuko dute zein hirugarren gelditu, eta Joxe Felipe Auzmendi eta Jesus Gaztearenaren artean jokatuko da txapela.

### ✓ MUSIKA ESKOLA

**Kontzertuak gaur.** Hernani Musika Eskolako ikasleak kurso bukaerako kontzertuak egiten ari da. Gaur klarineta, perkusioa, saxofoia, tronpeta eta ikasleen banda arituko dira. Sandiusterrin, arratsaldeko 19:00etatik aurrera. □

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093  
►Udaltzaingoa: 943 333288  
►DYA: 943 464622  
►Autobusak: 943 556662  
►Anbulatorioa: 943 006666  
►Jokalarri anonimoak: 943 331103

### ☎ FARMAZIAK

►Eguez: Bulnes  
Florida auzoa  
☎ 943 557738  
►Gaez: Gil  
Lasarte. Nagusia 24  
☎ 943 361529

## IRAGARKI MERKEAK

MOVIL HOME (karabana) bat alokatzen da Landasetan. Tarifa prezioetik %25eko deskontua. Uztaila eta Abuztuan. Deitu: 943 33 02 12 - 635 72 99 28

## ZINGI-ZANGA



Florida 54  
☎ 943 33 03 97

**SAGARDOTEGIA**  
*Orain, jangela berria.*  
*Sagardo kupel eta guzi.*

45 pertsonentzako tokia.

Larunbatean inaugurazioa. SAN JOANetan zabalik.

**Deitu San Joanetarako bazkari eta afarietarako**  
**ZINGI-ZANGA Jatetxea - Florida 54 - Tel.: 943 33 03 97**